




Hezkuntza publikoan lan baldintzak hobetu. Hemen eta orain erabakita.

STEILAS, LAB, ELA eta CCOO sindikatuek maiatzaren 12tik 16rako EAEko Hezkuntza publikoko irakasleen greba erregistroa egin dute

Maiatzaren 10ean, larunbata, Hezkuntza publikoko hezkuntza komunitateko irakasle, familia, ikasle eta gainontzeko langileak elkartu eta manifestazioak egingo dituzte EAEko hiru hiriburuetan.

STEILAS, LAB, ELA eta CCOO sindikatuak Donostiako Lurralde Ordezkaritzan elkartu dira gaur, EAEko Hezkuntza publikoko irakasleen **greba dinamikaren erregistroa** egin eta urtarrilean hasitako greba eta mobilizazio zikloari jarraipena emateko.

Urtarriletik apirilera bitartean, %90eko ordezkaritza duten STEILAS, LAB, ELA eta CCOO sindikatuek deituta, bederatzi greba egun egin dituzte irakasleek. Orain arte luzatutako proposamenek, bestalde, ez diete erantzun egokirik ematen aldarrikatutako edukiei. Izan ere, **eduki, zehaztapen eta bermeak falta direla adierazi dute behin eta berriro**. Hala, orain arte egindako greba eta mobilizazio arrakastatsuek segida izango dute **beste 5 greba egunekin maiatzaren 12, 13, 14, 15 eta 16an**.

Gogoratu beharra dago indarrean dagoen irakasleen lan-akordioa 2010ekoa dela, hortaz, 15 urte luze daramatza Eusko Jaurkitza hura berritu gabe. Aipatzekoa da ere apirilaren 10ean iragarri zituztela maiatzeko grebak, eta **ordutik sindikatuek ez dutela Hezkuntza Sailarekin biltzeko deialdirik jaso**.

Egindako grebetan, langileek argi eta garbi adierazi diete Hezkuntza Sailari hitzarmena orain eta hemen negoziatzeko beharra, eta sindikatuen aldetik, erabateko prestasuna izan dute beraiekin biltzeko. Baina Hezkuntza Sailak negoziatzeko atea zabalik duela saldu nahi izan badu ere, errealitatea bestelakoa izan da: **jarrera itxia, eszenifikazioa, edukirik gabeko bilerak, xantaiak... Ez dituzte negoziatzeko aukerak aprobetxatu, eta blokeoa luzatzen dabilta**. Hitzetatik harago edukiak, zehaztapena eta konkrezioak behar dituzte langileek.

Greba ziklo honetan zehar, **mezu argiak helarazi dizkiote Hezkuntza Sailari**: gero eta handiagoak diren lan-zamak arintzeko neurri zehatzak adostea, erretiroa hartzeko baldintzak hobetu eta plantillen gazteberritze plana garatzea, galdutako erosahalmena berreskuratzea, eta jaiotza-tasa aitzaki hartuta aldebakarrez erabakitzen ari diren ikastetxe publikoen fusio eta itxieren aurrean enplegu publikoa bermatu eta lanpostuak egonkortzea. Era berean, hezkuntza publikoko sistema osoa euskaldunduko duen hezkuntza politikak abiaraztea, lan-osasuna zaintzea, kalitatezko berdintasun eta hezkidetzaren plan egonkorra garatu ahal izateko, baliabide pertsonalak eta hauetarako beharrezkoak diren formakuntzak ezartzea, eta azken urteetan inposatutako atzerapausoak kentzea eskatzen dute.


Ezin ahaztu, irakasleek greba eta manifestazioetan erakutsitako indar erakustaldi horri, familia eta ikasleek antolatutako mobilizazioak gehitu zaizkiola. Izan ere, **grebak babestu eta aldarrikapenekin bat egiten duela adierazi du hezkuntza komunitateak**. Hala, **maiatzaren 10ean**, larunbata, denak elkartu eta **manifestazioak** egingo dituzte EAEko hiru hiriburuetan. Donostian, arratsaldeko 17:00etan, eta Bilbo eta Gasteizen 18:00etan.

Hezkuntza publikoa indartzeko ezinbestekoa da inbertsioa handitzea, lan baldintzak hobetzea eta eskola publikoa baliabideez hornitzea.

Denok grebara! Denok kalera!

Euskal Herria, 2025eko maiatzaren 5ean





Mejora de las condiciones laborales en la educación pública.

Decididas aquí y ahora.

STEILAS, LAB, ELA y CCOO realizan el registro de huelga del profesorado de la Educación pública de la CAV para la semana del 12 al 16 de mayo

El sábado, 10 de mayo, se reunirán profesorado, familias, alumnado y demás personal de la comunidad educativa de la educación pública y se realizarán manifestaciones en las tres capitales vascas.

Los sindicatos STEILAS, LAB, ELA y CCOO se han reunido hoy en la Delegación Territorial de Bilbao para realizar un **registro de la dinámica de huelga** del profesorado de la Educación pública vasca y dar continuidad al ciclo de huelgas y movilizaciones iniciado en enero.

Entre enero y abril, convocados por los sindicatos STEILAS, LAB, ELA y CCOO, con una representación del 90%, han realizado nueve jornadas de huelga. Las propuestas extendidas hasta ahora, por otra parte, no dan una respuesta adecuada a los contenidos reivindicados. De hecho, han insistido una y otra vez en que **faltan contenidos, concreciones y garantías**. Así, las huelgas y movilizaciones exitosas realizadas hasta ahora tendrán continuidad con **otras 5 jornadas de huelga los días 12, 13, 14, 15 y 16 de mayo**.

Hay que recordar que el acuerdo laboral del profesorado vigente, data de 2010, por lo que el Gobierno Vasco lleva 15 años sin renovarlo. También hay que mencionar que el 10 de abril anunciaron las huelgas de mayo y, **desde entonces, los sindicatos no han recibido ninguna convocatoria para reunirse con el Departamento de Educación**.

Durante las huelgas realizadas, el profesorado ha trasladado claramente al Departamento de Educación la necesidad de negociar el convenio ahora y aquí, y por parte de los sindicatos, aseguran que han tenido plena disposición para reunirse. Pero aunque el Departamento de Educación ha querido vender que tiene la puerta abierta a negociar, la realidad ha sido otra: **actitud cerrada, escenificación, reuniones sin contenido, chantajes... No han aprovechado las oportunidades para negociar y están prolongando el bloqueo**. Más allá de las palabras, el personal docente necesita contenidos, concreción y concreciones.

A lo largo de este ciclo de huelga, **el colectivo ha lanzado mensajes claros al Departamento de Educación**: acordar medidas concretas para aliviar las crecientes cargas laborales, mejorar las condiciones de jubilación y desarrollar el plan de rejuvenecimiento de las plantillas, recuperar el poder adquisitivo perdido, y garantizar el empleo público y estabilizar los puestos de trabajo ante las fusiones y cierres de centros públicos que están decidiendo unilateralmente con la excusa de la natalidad. Asimismo, los sindicatos piden que se pongan en marcha políticas educativas que euskaldunicen todo el sistema educativo público, que se preserve la salud laboral, que se puedan desarrollar planes estables de igualdad y coeducación de calidad, que se establezcan los recursos personales y las formaciones necesarias para ello, y que se eliminen los retrocesos impuestos en los últimos años.

A esta demostración de fuerza exhibida por el profesorado en huelgas y manifestaciones, se han sumado las movilizaciones organizadas por familias y estudiantes. De hecho, **la comunidad educativa ha manifestado su apoyo a las huelgas y su adhesión a las reivindicaciones**. Así, el **sábado 10 de mayo** se unirán para realizar **manifestaciones** en las tres capitales de la CAV. En Donostia a las 17:00 de la tarde y en Bilbao y Vitoria-Gasteiz a las 18:00.

Para reforzar la Educación pública es imprescindible aumentar la inversión, mejorar las condiciones laborales y dotar de recursos a la Escuela pública.

Denok grebara! Denok kalera!

En Euskal Herria, a 5 de mayo del 2025

